

Adolfo Muñoz, *Txiki-ren* agurra

ELAren ohiz kanpoko
kongresua.
2019ko apirilaren 5a



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

Agur errebelde bat

Gaur da nire azken interbentzioa. Pozik nago, benetan.

Agur esateko ordua heldu zait. Ohore bat izan da niretzat ELAko idazkari nagusia izatea proiektu kolektibo baten barruan. Ezin da ulertu ELA zer den hori kontuan hartu gabe: egiten dugun proiektu kolektiboa.

Ni harro nago sindikalista izateaz. Sindikalista izatea, niretzat, lana eta pasioa izan da eta, politikan eragiteko modu eraginkor eta duin bat.

Kazetari batek zera esan zidan: “ELA Euskal Herrian eragile oso konsolidatua eta eraginkorra da”. Nik azaldu nion horrela izan dadin, historian zehar, ELAk zer egin duen.

Orain dela 43 urte garaiko militanteek erabaki batzuk hartu zituzten. ELA zer den ulertzeko derri-gorrezkoa da horri erreparatzea: Erabaki politiko bat hartu zen: klaseko sindikatu abertzale bat egi-tea. Obsesio batekin: antolakuntzari lehentasuna ematea langileen indar korrelazioa hobetzeko. Eta, nola ez, ELAren autonomia indartuz. Sindikatua eraiki inolako interferentziarik gabe. Horretarako, ELAren historia aldatu zuten, autonomia izateko alderdiekiko, gobernuekiko eta botere ekonomikoe-kiko.

Garai hartan oso jende gutxik egiten zuen apustu ELAren alde, baina militante haiek lanari ekin zioten eta hemen gaude. Gaurko errealitatea ordutik dator. Hemen gaudenok asko zor diegu erabaki horiek hartu zituztenei. Orain erreleboa egiterakoan, batez ere gazteei, esan behar zaie guk baino lehen ELA n jende askok bidea ireki zuela. Haiei zor dieguna aitortu nahi dut gaur.

Iraganari erreparatzen diot, baina ez iraganaz hitz egiteko, etorkizunaz baizik. Nire azken interbentzioan lotu nahi ditut iraganeko militanteak eta erabakiak etorkizun handia duen sindikatu batekin.

ELAk oraina duelako -hemen dago, indar betean, gure leloak dioen moduan- eta etorkizun oparoa, bete-betean eusten diolako bere borondateari: baliagarri izatea euskal langile klasearentzat eta gure herriaren soberaniarentzat.

ELAk, nire ustez, gauza batzuk ondo egin ditu: Lehena, barne-kohesioa zaindu kotrabotereko sindikalismo indartzeko. Ideologiak ez dira iraganeko kontua. Begira bestela faxismoa nola dabilen! ELAk hazten asmatu du, eta ez soilik kopuruetan; batez ere posizio ideologikoan, eta hau funtsezkoa da garai hauetan, non ia dena birtuala eta likidoa den.

Bigarrena, errealitatek ez aldendu. Ikusitakoa aintzat hartu eta ondorioak atera. Errealitatea bere horretan deskribatzea iraultzailea da batzuetan, eta gure errelatoa oso indartsua da.

Hirugarrena, militanteei perspektiba eman. ELAren adiskide batzuk ekarri nahi ditut gogora: Christian Dufour eta Adelheid Hege. Munduan zehar sindikalismoa ikertzen dute eta hainbat bider izan dira gure artean. Asko estimatzen ditugu. “Mugaldeko mitoa” delakoaren berri eman ziguten. Bi herrialdeen arteko muga inguruaz ari ziren: Alde bateko sindikatuek esaten zuten jendea ez zela afiliatzen “prekario eta emakume” zirelako. Haatik, mugaz bestaldeko sindikatuen arabera, afiliatzen ziren hain zuzen “prekario eta emakume” zirelako... Prekariatate beraren aurrean erantzun sindikal ezberdina: horren baitan afiliatzen ziren. Aipamen hori

ez dut sekula ahaztuko. Ez eta bere ondorioa ere: sindikatuaren esku dago langileak erakartzea ala ez; hots, sindikatuak jendearen kezka eta arazoei lehenetsuna ematen badie sindikalismoa eta klase-identitateak bizirik irauten dute eta jende hori, bere jendea, antolatzeko gauza da.

Laugarrena, beti saiatu izan gara aliantza sindikal eta sozialak indartzen, kontrabotere eta borroka oinarritzat hartuta. Batzutan asmatu dugu eta beste batzutan ez. ELAk ondo asko daki eskuina hegemoniko dela, horrek zer ondorio dituen eta aliantzak zein garrantzitsuak diren.

Zein da ELAren pekatua? 43 urte igarota ere aldatu ez izana; aitzitik, oraingo gobernuak neoliberala-goak eta autoritarioagoak dira. Guk defenditzen dugu gure herriaren soberania eta eredu sozial alternatibo bat; gure ustez klase-gatazka bat badago, eta gure jendea antolatuko duen sindikalismoa eraikitzen dugu, bere interes eta helburuen alde egingo duena; eta ez dugu menpekotasun edo klientela harremanik onartzen, inorekin ez. Honetan ere tematiak gara, uste dugulako langile-klasearen interesak ez direla bigarren mailako kontua.

MILA ESKER

Gaur jende askori adierazi nahi diot nire esker ona. Nire familiari, beti ulertu izan zuelako nire militantzia, eta Josune nire lagunari, bera gabe ezin izango bainukeen aintzat hartu eman zidaten ardurara... Eta badakit zer kostu izan duen berarentzat.

Nire adiskide guztiei. Batzuk, beren adibide eta zintzotasunarekin, eragin handia izan zuten nik ELA hautatzerakoan.

ELAko militanteei, gizon eta emakumei, enpresetan lanik konprometituena egiteagatik. Zuek gabe ez dagoelako sindikalismorik.

Esparru alternatiboetako militante sozialei: pobrezia, migrazioa, etxebizitza, klima aldaketa, feminismoa, pentsiodunak...

Gogoeta egitera derrigortzen gaituzten guztiei, baita kargu hartzen digutenean ere.

ELAko emakumei, aldaketa kultural baten aitzindari izan zaretelako, eta horri esker genero politikari buruzko sakoneko erabakiak hartzen ari garelako.

ELAn izan ditudan arduradunei. Formatzen eta ideologikoki heltzen lagundu nindutelako. Ezagu-

tu nahia, jakinmina sortu zuten nigan. Ulertarazi zidaten militanteekin arduradun bakoitzak egiten duen lanak dakartzala emaitzak, antolakuntzan zein botere sindikalean. Sindikalismoaren grina sartu zidaten.

Batzorde Eragileko nire kideei (Amaia Muñoa, Laura, Leire, Amaia Aierbe, Joseba, Xabi, Mikel, Eustakio, Pello eta Ivan), eta Gabiri, noski. Talde gisa lan egiteaz gainera, oso ondo konpondu gara, eta horrek lana erraztu egiten du.

NIRE AZKEN HITZAK...

Asko pentsatu ditut:

1. Sindikatuan ikusten dudanean gazte jendea eta emakume asko, nire buruari esaten diot erreleboa burutu dela.

2. Jende askok du sindikatuaren beharra, eta ez diegu kale egingo. Enpresetan eta jendartean, prekaritate eta pobrezia pairatzen ari direlako. ELAk ondo asko daki sindikalismorik gabeko jendartearen kostua zein den. Hain zuzen, neoliberalak ere badakite, eta horregatik, patronalek eta gobernuak sindikalismo erreibindikatioari eraso egiten diote gurean. Bada, erreibindikatzen duen sindikatua eginez erantzun behar diegu.

3. Egia da: neoliberalismoa aseezina eta suntsitzailea da. Arerio gisa ezin da gutxietsi. Nire lagun on batek esaten du: "errua kapitalismoarena da". Proiektu neoliberalak identitate politiko, sozial, sindikal, kultural eta nazionalak txikitzen ditu... Horregatik, behar bezala aurre egiteko, gure nortasuna landu eta geure klase-kultura elikatu behar dugu.

4. Azkenik, eskatzen dizuet babesa eman diezaiozuela zuzendaritza berriari eta Mitxel Lakuntza idazkari nagusiari. ELAko idazkari nagusiak (Joxe, Txiki edo Mitxel dela ere) hausnarketa kolektibo bat adierazten du, eta kargu hartzen badiote, egin beharrekoa egiten dugulako da. Hari kritika egiten diotenean guztioi zuzentzen digute kritika. Jakin dezatela: ELA aurrera doa! Nik eta Batzorde Eragileak zuen babesa sentitu dugu. Eskatzen dizuet berdin jarrai dezazuela egiten Mitxel gure hurrengo idazkari nagusiak gidatuko duen taldearekin.



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA